



Andoaingo Udala

BANDOA

Ana Carrere Zabala

Alkateak / La Alcaldesa

Gaia: Ataria, Zergabilketa eta hondakinen zerbitzuak lekualdatu egingo dira udaletxeko obrak direla eta.

Asunto: Los servicios de Ataria, Recaudación y Residuos se trasladarán a otro edificio debido a las obras en el ayuntamiento.

Pasa den urtean udaletxean hainbat obra gauzatzea erabaki zen: batetik, igogailua egokitzeko lanak, eta bestetik, Ataria Herritarren Arreta Zerbitzuaren instalazioak handitu eta hobetzeko lanak.

Bada, lan hauek datorren apirilaren 1n hasiko dira, eta horregatik, hainbat egokitzapen egingo dira egungo espazioetan. Esaterako, apirilaren 1etik aurrera, Ataria Herritarren Arreta Zerbitzua zein hondakinen inguruko zerbitzuak, Ambrosia Olabideko eraikinaren sarreran egokitzeko dira (Jubilatuen tabernaren ondoan), eta Zergabilketa zerbitzua, berriz, eraikin bereko hirugarren solairuan.

Aurreikuspenen arabera, lanen iraupena lau hilabetekoa izango da, eta bien bitartean, Ambrosia Olabideko eraikinean mantenduko dira aipatu zerbitzuak.

Udaletxean igogailua egokitzea behar-beharrezko lana da; gaur egun udaletxeak ez ditu ezinbestekoak diren irisgarritasun baldintzak betetzen, eta horregatik, horretan inbertitzea erabaki du Udalak. Aldi berean, lan hauek Herritarren Arreta Zerbitzua hobetzeko aprobetxatuko dira, gaur egungo espazioa handituz.

Andoainen, 2019ko martxoaren 28an

El pasado año se decidió realizar varias obras en el ayuntamiento: por un lado, se aprobó instalar un ascensor, y por otro, ampliar y mejorar el Servicio de Atención a la Ciudadanía Ataria.

En ese sentido, las obras comenzarán el 1 de abril, y por ello, se realizarán algunas modificaciones en los espacio actuales. Por ejemplo, a partir del 1 de abril, el servicio de Atención a la Ciudadanía Ataria así como el de Residuos se situará en la entrada del edificio Ambrosia Olabide (al lado del Hogar del Jubilado), y el servicio de Recaudación, en el tercer piso del mismo edificio.

Según las previsiones, las obras tendrán una duración de cuatro meses, y durante este tiempo dichos servicios se atenderán en el edificio Ambrosia Olabide.

Acondicionar un ascensor en el ayuntamiento es imprescindible; hoy por hoy no se cumple con la accesibilidad necesaria por ello, el ayuntamiento decidió invertir en ello. A su vez, estas obras se aprovecharán para mejorar el servicio de Atención a la Ciudadanía, ampliando el espacio actual.

En Andoain, a 28 de marzo de 2019

Alkatea / La Alcaldesa



Ana Carrere Zabala